

EUSKOTRENEK EIBARREN AUTOBUSEN ZERBITZUA ALDATUKO DU INAUTERIETAN ZE HAR

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, 22an (larunbata) eta 23an (igandea) Eibarren autobusen zerbitzua aldatuko du INAUTERIAK direla eta.

Eibarko erdigunea oinezkoentzako bihurtuko da larunbateko, otsailaren 22ko 12:00etatik igandeko, otsailaren 23ko 22:00ak arte. Hori dela eta, DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa Lurraldebus lineetako autobusak asteburuetan bezala ibiliko dira.

Beste alde batetik, larunbateko, otsailaren 22ko, Udalbus udal zerbitzuan honako zirkulazioak kendu egingo dira:

- 12:00 Amaña-Azitain.
- 12:20 Azitain-Amaña.
- 12:40 Amaña-Azitain.
- 13:00 Azitain-Amaña.

Informazio gehiago lortu nahi duten erabiltzaileek eskura dute Euskotrenen telefonoa: 944 333 333. Webgunean ere informazioa lor dezakete (www.euskotren.eus), baita Twitterren ere (@[euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV)).

Igorpen data: ostirala, 2020ko otsailaren 21a